

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Behin betiko onespena ematea udal saneamendu sarerako isuriei buruzko ordenantzari

Denon ezaguerarako jakinarazten da udal honetako Udalbatzarrak, 2019ko apirilaren 30ean egin duen osoko bilkuran, hartu duen erabakiko xedapenenen atala honako hauxe dela:

Lehenengoa. Baiestea Roscacero, SL enpresak aurkeztutako alegazioa eta, ondorioz, 11. artikuluan ezarritako gehienezko isurtze balioak (GIB) aldatzea, pH parametrarako gehieneko muga 9,5 izan dadin.

Bigarrena. Partzialki baiestea Tubacex Tubos Inoxidables, SAU enpresak aurkeztutako alegazioa, isurketa sanitarioei jatorriaren arabera ezartzen zitzaizen bereizketa nahiz 10. artikuluko 4. puntua kenduta eta aurretratamendua jorratzen duen 12. artikulua 2. idatzi-zati gisa jasotzea. Beraz, honela geratuko da idatzia 12. artikulua 2. idatzi-zatia:

2. HUA martxan jarri arte, etxebizitzetatik nahiz industrietatik datozen ur sanitario guztiak aurrez araztu beharko dira, gutxienez, hobi septiko baten edo teknika baliokide baten bidez.

Hobi septikoen titularrek behar bezala funtzionatzen dutela bermatu beharko dute, beraz, garbitu egin beharko dituzte beharrezkoa den guztietan eta, edonola ere, hiru urtean behin gutxienez (karga organikoaren arabera). Garbitze- eta mantentze-lanetan kentzen diren lohia eta jalkinak baimendutako kudeatzaile batek kudeatu beharko ditu, indarrean dagoen araudiarekin bat eta titularrak ordainduta. Garbitze-lan horien egiaztagiriak gorde beharko dira, eta udalari emango zaizkio eskatzen dituenean.

Hirugarrena. Ezestea Tubacex Tubos Inoxidables, SAU enpresak aurkeztutako gainerako alegazioak, azaldutako arrazoiak oinarri hartuta.

Laugarrena. Behin betiko onestea udal saneamendu sarera isurtzeko udal ordenantza, baietsitako alegazioak kontuan hartu ostean.

Bosgarrena. 7/1985 Legean, apirilaren 2koan, 70. artikulua, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen xedatutakoarekin bat, agintzea ordenantzaren testu osoa ALHAOn argitaratu dadila, ohartarazita erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko dela 2 hilabeteko epean, iragarkia argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta, eta, betiere, 29/1998 Legearen, uztailaren 13koaren, Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoen Jurisdikzioari buruzkoaren 46. artikuluaekin bat.

Laudio, 2019ko maiatzaren 6a

Alkate-udalburua

JON IÑAKI URKIXO ORUETA

UDAL-SANEAMENDU SARERA ISURTZEKO ORDENANTZA

AURKIBIDEA

HITZAURREA

I. KAPITULUA- XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua. Xedea
2. artikulua. Aplikazio-eremua
3. artikulua. Definizioak

II. KAPITULUA. SANEAMENDU SAREA ERABILTZEA

4. artikulua. Konektatzeko betebeharra
5. artikulua. Harguneak
6. artikulua. Saneamendu-sare pribatuak
7. Artikulua. Erregistro-kutxatila
8. artikulua. Kontrol-estazioak
9. artikulua. Kontserbazio-betebeharra
10. artikulua. Debekatutako isurtzeak
11. artikulua. Mugak

12. artikulua. Aurretratamendua

13. artikulua. Larrialdia

III. KAPITULUA- IKUSKAPENA ETA KONTROLA

14. artikulua. Ikuskapen-langileak
15. artikulua. Langileen sarbidea
16. artikulua- Ikuskapen-aktak
17. artikulua. Administrazioarekiko lankidetzak
18. artikulua. Autokontrola
19. artikulua. Laginak biltzea
20. artikuluak. Analitikak

IV. KAPITULUA- KUTSADURA-KARGA

21. artikulua. Kutsadura-karga
22. artikulua. Isurtze-bolumena

V. KAPITULUA- ISURTZEKO BAIMENA

23. artikulua. Baimena lortzea
24. artikulua. Baimena aldatzea
25. artikulua. Baimenaren indarraldia
26. artikulua. Sarera konektatzeko betebeharra kentzea
27. artikulua. Iraungipena

VI. KAPITULUA- BETEBEHARRAK ETA ZIGOR ARAUBIDEA

28. artikulua. Erabiltzailearen betebeharrak

29. artikulua. Arau-haustek

30. artikulua. Zehapenak

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa

Bigarrena

AZKEN XEDAPENA

1. ERANSKINA- Jarduera hasi aurretiko eskaeran edo komunikazioan aurkeztu beharreko informazioaren irismena

B motako erabiltzaileak

C motako erabiltzaileak

SANEAMENDU-SARERA ISURTZEKO ORDENANTZA

HITZAURREA

Toki erakundeei emandako erregelamendu-ahala erabilia, Laudio Udalak bere jabetzako udal hodi biltzailera egiten diren isurketak arautzeko lanari ekin dio.

2006. urtean., Urari buruzko 1/2006 Legea onetsi zuen Eusko Legebiltzarrak, zeinaren 33. artikuluan xedatu baitzen "Horniketa, saneamendua eta hondakin-uren arazketa egiteko, zerbitzu horiek arauturik egon behar dute". Horiek horrela, ordenantza honen helburua da ura saneatzeko eta arazteko zerbitzua arautzea, aipatutako lege-agindua betetzeko.

Gauzak horrela, saneamendu eta arazketa zerbitzuari buruzko ordenantza espezifiko hau prestatu da, betiere, 1/2006 Legearen 35. artikuluan xedatutako beharkizunak aintzat hartuz.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honen xedea da saneamendu sare publikora egiten diren hondakin uren isurketak arautzea. Hauek dira helburu zehatzak:

Sarea eta dagozkion instalazio osagarriak babestea, osotasun materiala eta funtzionala ziurtatzeko.

Ustiatze eta mantentze-lanetako langileen segurtasuna bermatzea.

Hondakin uren arazketa prozesuak ez etetea edo eragozte.

Organo eskudunak efluenteentzat ezarritako kalitate-helburuak betetzea.

2. artikulua. Aplikazio-eremua

Laudio Udalaren saneamendu-sarearen erabiltzaile guztiei aplikatuko zaie ordenantza hau.

3. artikulua. Definizioak

a. Saneamendu-publikoaren sarea: ordenantzaren aplikazio esparruan sortutako hondakin-eta euri-urak bildu eta eramatea ahalbidetuko duen jabego publikoko obren edo instalazioen multzoa.

b. Saneamendu-sare pribatuak: jabego pribatuko instalazioen multzoa, bat edo hainbat erabiltzailerengandik datozen hondakin- eta euri-urak bildu eta saneamendu sare publikora isurtzen dituena.

c. Saneamendurako behe-instalazioak: biztanle guneetako hondakin-urak jasotzeko eta udalen estolda sareen bidez kolektore orokorrekin bat egin egiten duten punturaino eramateko instalazioak.

d. Saneamendurako goi-instalazioak: toki erakundeen saneamenduko behe-instalazioak osatzen dituzten estolda sareetatik zuzenduta, hondakin-urak bideratu, ponpatu, tratatu, araztu eta isurtzeko eginkizuna dutenak.

e. Araztegia: saneamendu sareetatik datozen hondakin-urak arazteko beharrezkoak diren egitura, mekanismo eta instalazioen multzoa.

f. Aurretratamendua: etxebizitza, industria jarduera, merkataritza jarduera edo bestelako instalazioetatik datozen hondakin-urak tratatzeko egitura, mekanismo eta instalazio pribatuen multzoa. Aurretratamenduaren xedea da hondakin-ur horiek saneamendu-sare publikoan edo araztegian onartu ahal izateko ordenantza honetan xedatutako baldintzak betetzea.

g. Erabiltzailea: pertsona fisiko edo juridikoa, hondakin urak sortzen dituen etxebizitza, jarduera, saltoki edo industria baten titularra. Kategoria hauetan sailkatzen dira erabiltzaileak:

– A kategoria: ura bere etxebizitzan soilik erabiltzen duena, inolako merkataritza edo industria erabilerarik gabe.

– B kategoria: ura merkataritza-, zerbitzu-, ostalaritza- edo industria-jardueretarako edo beste jardueretarako baliatzen duten erabiltzaileak, betiere, urteko 3.000 m³ baino gutxiago kontsumitzen badute, etxebizitzetako ohiko erabilera egiten ez badute eta 70 biztanleren kutsadura-karga baliokidea gainditzen ez badute.

– C kategoria: ezaugarri hauek betetzen dituzten erabiltzaileak:

- Ura merkataritza- edo industria-jardueretarako baliatzen duten eta urteko 3.000 m³ baino gehiago kontsumitzen dituzten erabiltzaileak edo, bolumen txikiagoa kontsumitu arren, 70 biztanleren kutsadura-karga baliokidea gainditzen dutenak.

- Udal hornidura-sarekoak ez diren baliabideetako ura aprobetxatzen dutenak (putzuak, euri-ura, ur-bilguneak etab.).

- Aurreko puntuetako baldintzak betetzen ez arren, aplikatzen dituzten prozesuen ondorioz kolektoreetan, arazketa-prozesuetan edo ur-ingurumenean kalteak eragiten dituzten edo eragin ditzaketen gaiak isurtzen dituztenak.

Erabiltzaile baten kategoria aldatuz gero, erabiltzaileak automatikoki bete beharko ditu ordenantza honetan dena delako kategoriarako xedatu diren betebeharrak.

h. Gehieneko emisio-balio: denbora tarte zehatz batean edo batzuetan gainditu behar ez den masa, kontzentrazioa edota emisio maila, parametro zehatz gisa adierazia. Gehieneko emisio-balioak zehaztu ahalko dira substantzien talde, familia edota kategoria zehatzetarako ere.

i. Biztanle baliokide: 5 eguneko oxigeno-eskari biokimiko (OEB5) hau duen karga organiko biodegradagarria: 60 gramo oxigeno egun bakoitzeko.

j. Ur beltzak: etxebizitza- eta zerbitzu-zonaldeetatik datozen hondakin-urak, batez ere, giza metabolismotik sortuak, baita merkataritza, industria, nekazaritza eta abeltzaintza bestelako etxeko jardueretatik ere. Jatorri desberdinekoak izan daitezke: alde batetik, hiriko ur beltzak daude, hau da, etxebizitzetatik datozenak eta, bestetik, industrialak, alegia, industria-jarduera batetik datozenak.

k. Ur industrialak: merkataritza-, industria-, nekazaritza- edo abeltzaintza-jardueretarako erabiltzen diren establezimenduetatik isurtzen diren hondakin-ur guztiak, etxeko hondakin-urak ez direnak. Aipatutako establezimenduetatik datozen eurien jariatze-urak ere hondakin ur industrialtzat joko dira, baldin eta kutsatuta badaude edo kutsatuta egon badaitezke.

l. Euri-urak: zuzenean lur-azalean barneratu beharrear, lur-azalean zehar ibili ondoren ibai, laku, erreka edo tratamendu-sistema batera iristen diren euri-urak. Gerta daiteke ur horiek gai kutsatzailerren bat edota sedimenturen bat eramatea; halakoetan, euri-ur zikintzat joko dira eta, beraz, saneamendu-sarera isuri beharko dira, tratatzeko. Gai kutsatzaile edo sedimenturik ez badaramate, euri-ur garbitzat hartuko dira.

m. Funtsezko aldaketa: instalazio batean egindako edozein aldaketa, baldin eta isurketa baimendu behar duen organo eskudunaren iritziz eta jarraian ageri diren irizpideen arabera pertsonengan edota ingurumenean ondorio kaltegarri edo garrantzitsuak izan baditzake. Ez-augarri hauen arabera ebaluatuko da aldaketa bat funtsezkoa den ala ez: isurtze-bolumena handitzea, ur-kontsumoa handitzea, isurketaren kutsadura-karga edota kutsatzaile espezifikoren baten karga handitzea.

n. Funtsezkoa ez den aldaketa: instalazioa baten ezaugarriak, funtzionamendua edo hedadura dena delako moduan aldatzea, baldin eta funtsezko aldaketa izan ez arren, ondorioak izan baditzake segurtasunari, pertsonen osasunari edota ingurumenari dagokienez.

o. Instalazioa: jarduera industrial bat edo gehiago garatzeko unitate tekniko finkoa; halaber, leku horretan bideratzen diren jarduerekin lotura tekniko zuzena duten eta emisioetan nahiz kutsaduran eragina izan dezaketen jardueretan erabiltzen diren unitateak ere instalaziotzat joko dira.

Ordenantza hau indarrean sartzen den unean funtzionatzen ari diren instalazioak joko dira instalaziotzat ordenantzaren ondoreetarako. Instalazio berrizat joko dira ordenantza hau indarrean sartu ondoren funtzionatzen hasten diren instalazioak.

II. KAPITULUA

SANEAMENDU-SAREAREN ERABILERA

4. artikulua. Konektatzeko betebeharra

1. Derrigorrezkoa izango da saneamendu-sare publikoa erabiltzea etxebizitza edo establezimendua saneamendu-sare publiko gertuenetik 200 metro baino gutxiagora duten A eta B kategoriako erabiltzaile ororentzat. Horretarako, erabiltzaileek hondakin-urak saneamendu-sarera isurtzeko beharrezko lanak egin eta beharrezko neurriak aurreikusiko dituzte, betiere, euren eskumenen esparruan, udalaren baimena izanda eta harekin koordinatuta.

2. C motako erabiltzaileek nahiz etxebizitza edo establezimendua saneamendu-sare publiko gertuenetik 200 metro baino gehiagora duten A eta B motako erabiltzaileek (edo salbuespeneko arrazoiak direla-eta, udalak baimena ematen duenean) aukera hauek izango dituzte:

– Saneamendu-sare publikoa erabiltzea. Horretarako, isurtzeko baimena lortu beharko dute, ordenantza honetan xedatutakoarekin bat, eta haien kontura izango dira egin beharreko obrak eta ipini beharreko instalazioak.

– Zuzenean saneamendu-saretik kanpora isurtzea. Horretarako, isurtzeko baimena lortu beharko dute dagokion agintaritza eskudunear.

3. Isurketa puntualei dagokienez, eta bereziki abeltzaintzako, industriako eta nekazaritzako elikagaietako ustiategietatik nahiz bestelakoetatik datozen isurketei dagokienez, isurketen bolumen-aurreikuspenak egin beharko dira (egokitzen jotzen bada, aurreikuspenak egiaztatzeko ikuskapenak egin ahalko dira) eta isuritako bolumenak edota kutsadura-kargak handiak izanez gero, udalak erabaki hauek hartu ahalko ditu: edo saneamendu-sarera isuri aurretik kasuan kasuko tratamendua egitera behartzea edo, aurretiazko tratamendua ekonomikoki edo teknikoki egingarria ez denean, fluxu horiek hondakin gisa tratatzera behartzea baimendutako kudeatzaile baten bitartez.

5. artikulua. Harguneak

1. Harguneak grabitatearen bidez lotuko dira saneamendu publikoarekin. Hustubide partikularren mailak hori egiteko aukerarik ematen ez duenean, finkaren erabiltzaileak edo jabeak bere kontura altxatu beharko ditu urak, lotura egiteko behar den kota lortu arte.

2. Partikularrek euren kontura eraiki, mantendu, garbitu eta konponduko dituzte harguneak. Beharrezkoa baldin bada bide publikoan zangak egitea, dagokion hirigintza-lizentzia lortu beharko da.

3. Eraikinen jabeek kontuan hartu beharko dute hargune partikularren bidez sartu ahalko direla eraikinetara saneamendu-sare publikoan dabiltzan urak; beraz, beharrezko kotak izan beharko dituzte hori ekiditeko edo, hala badagokio, ur-itzulketen kontrako sistema egokiak instalatu beharko dituzte. Partzuergoari ezin izango zaio erantzukizunik eskatu zirkunstantzia horrengatik.

4. Eraikuntzaren Kode Teknikoaren HS 5 oinarrizko dokumentuan edo hori ordeztzen duen arautegian uren hustuketari buruz jasotako neurri guztiak hartuko dira.

6. artikulua. Saneamendu-sare pribatuak

1. Saneamendu-sare pribatuek hondakin urak eta euri urak banatuta bideratu behar dituzte saneamendu-sare publikoan edo araztegian sartu arte; horrela, ur mota bat zein bestea identifikatu ahalko dira, haietako bakoitzetik laginak hartu ahalko dira, eta elkarrengandik banatuta ikuskatu ahalko dira. Sare publikoak bereizten ez duen lekuan ere, sare pribatuek urak bereizi beharko ditu.

2. Udalak zehazten dituen arau eta baldintzekin bat egingo da saneamendu-sare pribatuek sare publikoekin izan beharreko lotura.

3. Euri-urak hodi biltzailera edo zuzenean ibilgura eraman beharko dira, betiere, administrazio hidraulikoaren baldintzen arabera, baldin eta euri ur horiek kutsaturik ez badaude eta gai solidorik ez badaramate. Azken baldintza hori bete ezean, hondakin uren sare publikora eraman beharko dira euri-urak, eta horien bolumena neurtu beharko da, dagokion tasa ordaintzeko.

Hondakin-urak eta euri-urak ezin badira bereizi, euri-urak hondakin uren sarera konektatuko dira eta haien bolumena neurtu beharko da, dagokion tasa ordaintzeko.

Edonola ere, udalak ukatu ahalko du euri-urak hondakin uren sarera lotzea, sarean edukiera argudiatuta edo bestelako arrazoi justifikatuak oinarri gisa hartuta.

4. Industria-pabiloi, -eraikin edo -establezimendu multzoen isurketak biltzeko, saneamendu-sare publikoarekin lotzeko puntu bakarra erabiliko da, 200 metrotik gorako distantzietan izan ezik edo udalaren iritziz behar bezala egiaztatutako zirkunstantzietan izan ezik.

5. Sare pribatuek B edo C motako erabiltzaile batzuei eragiten dietenean, erregistro-kutxatilen bidez ahalbidetuko da establezimendu edo jarduera bakoitzaren isurketak kontrolatzea, erreferentzia berezia eginez industrialdeetan kokatutako establezimenduei.

7. artikulua. Erregistro kutxatilak

Saneamendu-sare publikoaren erabiltzaileek erregistro-kutxatila bat izan beharko dute sare pribatua sare publikoarekin edo sare pribatu partekatuarekin lortzeko puntuan, sareak behar bezala mantendu ahal izateko. Ez da baimenduko erregistro gabeko loturarik sare publikora.

8. artikulua. Kontrol-estazioak

1. Baimendutako isurketa guztiak batuko dituen kontrol-estazio bat instalatu beharko dute C motako erabiltzaileek saneamendu-sare publikorako konexioa egin aurretik edo, hala bada-gokio, sare pribatu partekaturako konexioa egin aurretik.

2. Estazio hori sare pribatuaren lotura-puntuan dagoenean, aurreko artikuluan araututako erregistro-kutxatilaren zereginak beteko ditu.

3. Ahal den guztietan, erabiltzaileen isurketak saneamendu-sare publikora konektatuko dira, aldez aurretik kontrol-estazio bakarra ezarrita; hala ere, salbuespen gisa, bi kontrol-estazio edo gehiago jarri ahalko dira, baldin eta isurketak batzea zaila bada.

4. Hauek izan behar dira kontrol-estazioaren osagaiak:

– Erregistro-putzua: Erraz sartzeko moduko putzua izan behar da, oztoporik gabea. Erroldatze, identifikazio eta onartze prozesua burutzeko, erabiltzaileak putzu eta laguntza elementu guztien kokapen-planoak igorri behar dizkio udalari.

– Kontrol-elementuak: Erregistro-putzu bakoitzean nahitaez instalatu beharko dira laginak erraz hartzeko eta ur-emariak neurtzeko behar diren elementuak, erregistro eta totalizatzailearekin. Udalak ezin izango du eskatu lagin-hargailu automatikorik edo bestelako kontrol gailurik instalatzea.

5. Isurketaren titularra izango da ordenantza honetan eta isurketa-baimenean eskatzen diren neurtzeko gailuen kalibrazioaren eta mantentzearen arduraduna.

9. artikulua. Kontserbazio-betebeharra

1. Erabiltzaileen ardura da saneamendu-sare pribatuaren mantentze- eta kontserbazio-lanak egitea, sarea osatzen duten kaudalimetroenak eta aurretratamendu-sistemenak barne.

2. Pertsona fisiko edo juridiko batek baino gehiagok erabiltzen baditu saneamendu sare pribatu horiek, erabiltzaile guztien betebeharra izango da funtzionamendu arrunterako beharrezkoak diren zaintza- eta mantentze-lanak egitea.

Erabiltzaileak modu solidarioan beharturik daude udalaren aurrean, beraz, udalak horietako bakoitzari eskatu ahalko dio betebeharrak guztiak osoki betetzeko. Hori ez da oztopo izango erabiltzaile bakoitzak gainerako behartuei behar dena eskatzeko bakoitzari dagokion proportzioan.

10. artikulua. Debekatutako isurketak

1. Erabat debekatua dago saneamendu-sarera zuzenean edo zeharka isurtzea hondakin-urak edo bestelako hondakin solido, oretsu, likido edo gaseosoak isurtzea, baldin eta horien izaera, propietateak edota kantitatea kontuan hartuta, berez edo beste hondakin batzuen eraginez saneamendu-sarean efektu hauetako bat edo gehiago eragiten badituzte edo eragin baditzakete:

– Nahastura sukoiak edo leherkorak sortzea.

– Udal saneamendu sareko, sare horren instalazioetako edota araztegiko materialen korrosioa.

– Instalazioak ikuskatu, garbitu, mantendu edo funtzionarazteko lanetan diharduten langileentzako oztopo diren ingurune-baldintza toxiko, arriskutsu edo gogaikarriak.

– Ura hodi biltzaileetan zehar ibiltzea oztopatzen duten jalkinak, inkrustazioak edo bestelako buxadura fisikoak sortzea, edo saneamendu-sarea garbitzeko, kontserbatzeko edota konpontzeko lanak eragozten dituztenak, adibidez: errautsa, kedarra, harea, lokatza, lastoa, txir-bila, beira, plastikoak, sokak, klabeak, trapuak, eskuzapi bustiak, oihalezko eskuzapiak, eskuak sikatzeko papera, konpresak, pixoihalak, lumak, mundruna edo galipota, zura, zaborra, simaurra, metalezko piezak, animalien hondakinak, ilea, erraiak, baxerako piezak, amiantoa, gatzuna, gainazalak tratatzeko bainu agortuak, edozein materialez egindako ontziak eta antzekoak, osorik egon nahiz txikitutako hondakinak izan.

2. Debekatua dago saneamendu-sarera produktu hauek isurtzea:

– Gasolina, nafta, petrolioa eta destilazioko bitarteko produktuak, bentzenoa, toluenoa, xilenoa eta uretan nahastu ezin den edozein disolbatzaile edo likido organiko edo erregai sukoi.

– Oinarri mineral edo sintetikoa duten olio industrial guztiak, hasieran eman zaizkien erabilertarako desegokiak diren lubrifikatzaileak eta, bereziki, errektuntza-motorretan eta transmisio sistemetan erabilitako olioak, olio mineral lubrifikatzaileak, turbinetarako olioak, sistema hidraulikoak eta beste emulsio batzuk.

– Kontzentrazioarengatik edota ezaugarri toxiko edo arriskutsuengatik efektu kaltegarri potentzialak ekiditeko tratamendu espezifikoa edo aldiroko kontrola behar duten hondakinak, bereziki, hondakin toxiko eta arriskutsuen nahiz medikamentuen legedian araututakoak.

– Hondakin-urak zeinen PH baloreak 5,5 baino baxuagoa edo 10 baino handiagoa direnean.

– Disolbatzaile organikoak, margoak eta bernizak, edozein proportzio eta zenbatekotan.

– Kaltzio-karburua eta arriskutsuak izan daitezkeen beste substantzia solido batzuk (hidruoak, peroxidoak, kloratoak, perkloratoak, bromatoak, nitruroak, sulfuroak eta abar).

– Abeltzaintzako hondakinak, mindak eta lastoa barne.

– Etxeetan jatorria duten hondakinak txikitze sistemak edo antzekoak erabiltzean sortutako hondakinak edota efluenteak.

– Abuztuaren 12ko 2519/1982 Errege Dekretuan, erradiazio ionizatzaileen aurkako osasun babesari buruzko arautegia onestekoan, eta 1753/1987 Errege Dekretuaren bidez onetsitako haren aldaketan ezarritako mugak gainditzen dituzten hondakin, isotopo edo produktu erradioaktiboak. Debekatua dago diluzio ura erabiltzea isurketetan, larrialdi edo arrisku egoeretan izan ezik eta, betiere, erakunde eskudunak erabilera hori aldeztetik onartzen badu.

3. Esanbidez debekaturik dago euri-urak bereizten dituen sarera kutsadura eraman dezaketen euri urak isurtzea; sare hori euri-ur garbiak isurtzeko baizik ezin da erabili.

11. artikulua. Mugak

1. Mugak ezarri dira hondakin-urak saneamendu-sare publikora isurtzeari dagokionez, eta oro har bete beharrekoak izango dira efluente bakoitzarentzat dagokion estazioan edo kontrol-kutxatilan.

PARAMETROAK	UNITATEA	GEHIENOKO EMISIO-BALIOA
pH onargarri baxuena		5,5
pH onargarri altuena		9,5
Solido esekiak	mg/l	< 210
OEK	mg/l	< 600
OEB _s	mg/l	< 300
Olioak eta koipeak	mg/l	< 40
Detergenteak guztira	mg/l	< 12
N-amonia	mg/l	< 35
Fosforoa guztira	mg/l	< 12

2. Aurreko taulan sarturik ez dauden parametro kutsagarriak kutsaduratzat hartuko dira eta debekaturik egongo da horiek saneamendu sarera isurtzea baldin eta horretarako baimen zehatzik ez badago; baimen hori aginduzko isurketa-baimenaren bidez eman beharko da, gai kutsagarriei buruzko baldintzak berariaz aipatuta.

Gehieneko emisio-balio eta parametroen zehaztapena kasuz kasu aztertuko da isurketa eragin duen jardueraren ezaugarrien arabera.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuei buruzko Legearen arabera ingurumen-baimen integratua behar duten jardueren kasuan, hobekuntza tekniko eskuragarrietan (HTE-etan) oinarrituko dira gehieneko emisio balioak, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuei buruzko Legearen testu bategina onestekoaren 7.4 artikuluaekin bat edo etorkizunean hori arautuko duen xedapen normatiboarekin bat.

3. Ordenantza honetan agertzen diren mugak aldatu eta muga zorrotzagoak eskatu ahalko dira salbuespen gisa erabiltzaile zehatz batzuen kasuan, baldin eta saneamendu-instalazioen kudeaketa orokorrekin zerikusia duten arrazoi bereziak azaltzen badira, hala nola, zenbait gai kutsatzailearen balantze orokorrak, erartzen diren diluzio mailak, kalitate helburuen lorpena eta horiek mugak zorrotzea justifikatzen badute. Udalak xedatuko du arrazoi horiek noiz gertatzen diren, dagokion ebazpena emanda.

4. Ezingo da diluzio metodorik erabili gehieneko emisio-balioak ez gainditzeko.

12. artikulua. Aurretratamendua

1. Ordenantza honen arabera saneamendu-sare publikora isuri ahal izateko mugak betetzen ez dituzten hondakin-urek beharrezko aurretratamendua izan beharko dute. Ezinezkoa bada, debekatua egongo da saneamendu-sarera isurtzea, eta hondakin gisa kudeatu beharko ditu baimendutako kudeatzaile batek.

2. HUAk jardunean hasi arte etxeetatik edota industrietatik datozen ur sanitarioak isurtzeko, guztiei eskatuko zaie nahitaez izan dezatela gutxienez putzu septiko edo tratamendu baliokide bat.

Hobi septikoen titularrek betebeharra izango dute horiek egoki funtzionatzeko moduan mantentzeko, beraz, garbitu egin beharko dituzte beharrezkoa den guztietan eta, edonola ere, hiru urtean behin gutxienez (karga organikoaren arabera). Indarrean dagoen araudiarekin bat baimendutako kudeatzaile batek kudeatu beharko ditu instalazio horiek garbitzean edo horien mantentze-lanak egitean sortzen diren lokatz eta jalkinak, titularraren kontura. Garbiketa horien egiaztatiriari gorde egin beharko dira, udalak eskatzen duenean hari aurkeztu ahal izateko.

3. Olioak eta koipeak tratatzeko sistema izan beharko dute gehiegizko koipe eta olio kopuruak sortu ditzaketen jarduerak, esaterako, sukaldaritza-establezimenduak (jattetxeak, jantokiak etab.), zerbitzuguneak, ibilgailuak konpontzeko tailerrak eta antzekoak.

4. Haien kokapen zehatza gorabehera, hondakin urak aurretratatzeko beharrezko instalazioak saneamendu-sare pribatuaren zati izango dira eta behar beste zehaztuko dira isurketaren baimen-eskaeran; eskaerari beharrezko proiektua erantsiko zaio, baita horren efikazia justifikatzen duten azterketak eta kalkuluak ere.

5. Salbuespen kasuetan, erabiltzaile batzuk elkartzen direnean euren isurketak aurretratatzeke, azkeneko efluente bateraturako isurketa-baimena lortu, eta erabiltzaile guztiak identifikatu beharko dituzte. Isurketa-baldintzak betetzearen ardura erabiltzaile erkidegoak izango du, eta euretako bakoitzak solidarioki.

6. Edonola ere, isurtzeko baimena emateko nahitaezko baldintza izango da aurretratamendua efikaz izatea, beraz, aurretratamenduak ez balitu aurreikusitako efektuak lortuko, baimena indargabetuko litzateke, eta debekatu egingo litzateke hondakin-urak saneamendu-sare publikora isurtzea.

13. artikulua. Larrialdiak

1. Saneamendu-sare publikora isurtzen duten edo isurtzea aurreikusten duten erabiltzaileek neurriak hartuko dituzte ordenantza honetan xedatutakoa urratuko luketen ustekabeko isurketak saihesteko.

2. Aurreko paragrafoan ezarritako ondoretarako, C motako erabiltzaileek larrialdi-plana izan beharko dute; plan hori udalari aurkeztu beharko diote, baita isurketa-baimenaren eskaera ere, udalak onartu dezan.

3. Istripurik badago edo debekatutako substantziak isurtzeko berehalako arriskurik egotekotan, erabiltzaileak ahal bezain laster jakinarazi beharko dio udalari, instalazioak babesteko beharrezko neurriak har daitezen.

Horrez gain, eta gehienez ere 2 eguneko epean, istripuaren txosten xehakaturia igorri beharko da udalera, datu hauek jasota:

- 1) Isurketaren ezaugarri fisiko eta kimikoak.. Tipologia.
- 2) Isurketaren bolumena.
- 3) Iraupena.
- 4) Deskargaren kokapena.
- 5) Deskarga eragin zuten kausak.
- 6) Etorkezuean ez errepikatzeke hartu diren neurriak eta egindako zuzenketak.

4. Atal honetan aipatutako istripuen ondoriozko operazioen kostuak (garbiketak, sare-konponketak, instalazioak, arazketa prozesuak eta bestelakoak) istripua eragin duen erabiltzailearen kontura izango dira; hala, gehienez ere hilabeteko epean ordaindu beharko ditu fakturaz direnetik zenbatzen hasita, eta, hala ere, izan litezkeen gainerako erantzukizunak ere bere gain hartu beharko ditu.

III. KAPITULUA

IKUSKAPENA ETA KONTROLA

14. artikulua. Ikuskapen-langileak

Udalak ikuskapen-zerbitzuen bidez edo kanpo erakunde espezializatuen laguntzaz beteko ditu saneamendu-sarera isurketak egiten dituzten jardueren aldizkako kontrola, ikuskapena eta zaintza, ofizioz edo interesdunek hala eskatuta.

15. artikulua. Langileen sarbidea

1. Udaleko langile teknikoek eta laguntzeko haiekin batera joan daitezkeen langileek sarbidea izango dute etxebizitza izaera ez duten lokal eta esparruetara, aurretik abisurik eman beharrik gabe, eta behar beste aldiz; hortaz, jabeak nahitaz utzi beharko die sartzeko.

2. Edozein jarduera edo instalazio kontrolatu eta ikuskatzeko eskumenak erabilita, udaleko langile teknikoek "agintaritzaren agenteen" izaera izango dute.

3. Sartzea ukatuz gero edo beharrezko egiaztapenak egitea eragotziz gero, ezar litezkeen zigor administratiboez gain, erabilera eten ahalko da eta kutsadura eragin den lokala edo instalazioa zigilatuta, hala badagokio, baimen judiziala eskatzeko aukera gorabehera.

4. Ikuskapen-langileek eta haiekin batera joan litezkeen langile laguntzaileek errespetatu egin dute ikuskapenetik eratorritako informazioaren konfidentzialtasuna.

5. Ingurumena, pertsonen osasuna edota saneamendu-sarea kaltetzea eragozteko edo kalteak arintzeko xedeaz, edo kalte horiek errepika ez daitezkeen, salbuespen gisa, ikuskapen-langileek beharrezko neurriak hartu ahal izango dituzte arriskuak murrizteko.

6. Aurreko idatz zatian azaltzen den kasua gertatuz gero, ikuskatzaileek aktan zehaztuko dute zeintzuk diren hartutako neurriak eta zeintzuk neurriok ezartzeko arrazoiak eta helburuak. Edonola ere, neurri horiek guztiak agintaritzaren eskudunak berretsi beharko ditu hurrengo 5 egun baldin dute.

16. artikulua. Ikuskapen-aktak

1. Ikuskapenaren emaitza akta batean jasoko da; akta horrek egiazkotasun-presuntzioa eta froga balioa izango ditu, bertan azaltzen diren gertakariei dagokienez; hori ez da oztopo izango interesdunek beren interesak defendatzeko azal ditzaketan gainerako frogak aurkezteko.

2. Parte hartzen duten alde guztiek sinatuko dute akta, baina aktak ondore berak izango ditu guztiek sinatu ez arren. Alde guztiek izango dute kopia bat eskuratzeko eskubidea.

3. Egiten diren bisita guztien ondoren egingo da dagokion ikuskapen-akta, eta bertan jasoko dira lekua, eguna eta ordua, jardueraren eta ordezkariaren identifikazio-datuak, ikuskariek antzemandako egitateak, egindako egiaztapen eta neurketa espezifikoak, eragindako arazoa nahiz planteatutako konponbidea sakonki ezagutzeko balio duen beste edozein datu, egindako proba eta egiaztapenak horien emaitzekin eta ikuskapenean jardun diren teknikarien identifikazioa.

17. artikulua. Administrazioarekiko lankidetzia

Isurketen titularrak edota arduradunak behartuta daude agintaritzaren eskudunari eta agintaritzaren langileei beharrezko duten laguntza guztia eskaintzera, haien funtzioa betetzeko beharrezko dituzten azterketa, kontrol nahiz neurketak egin eta informazioa jasotzeko lanak egin ahal izan ditzaten.

18. artikulua. Autokontrola

1. C motako erabiltzaileek kasu guztietan erregistratu eta autokontrolatu beharko dituzte saneamendu-sare publikora egindako isurketak, baita isurtzen dituzten hondakin-uren ezaugarriengatik udalak errekeritzen dituen erabiltzaileek ere.

2. Autokontrol-programa aplikatzean lortzen diren datuak erregistratu egingo dira, isurketekin erlazionatutako gorabehera eta esku-hartze guztiekin batera. Datu horiek kasuan kasurako xedatu den maiztasunarekin emango zaizkio udalari, egin litezkeen ikerketekin batera, eta egokitzen jotzen diren egiaztapenak egin ahal dira horien gainean.

3. Isurketa baimenean ezarritako autokontrolak gorabehera, eta hala dagokionean, kanpo erakundearen laguntzaz, udalak komenigarritzat jotzen dituen azterketak eta ikuskapenak egin ahal ditu, isurketaren ezaugarriak egiaztatzeko eta kontrol horien baliozkotasuna alderatzeko.

19. artikulua. Laginak biltzea

1. Analisiak egiteko lagin mota hauek erabiliko dira, edozein isurketa indibidual edota orokorretik eta edozein denbora-tartetan hartutakoak: uneko laginak, emariarekiko proportzionalak diren lagin integratuak edo konposatuak. Edonola ere, lagina isurketaren irudi ahal bezain zehatza emateko beharrezkoak diren alderdi guztiak hartuko dira kontuan.

2. Udalak isurketa baimenean horretarako adierazi den kontrol-estazioan edo kutxatilan hartuko dira laginak, baina, hala ere, egokitzen jotzen bada, isurketa indibidualak ere laginkatu ahal dira kontrol-kutxatilan erabiltzaile beraren beste isurketekin nahastu aurretik.

3. Ikuskapenean udalak biltzen dituen laginak hiru zatitan banatuko dira erabiltzaileak hala eskatzen duenean kontra-analisia egiteko; hala izatekotan, dagokion ikuskapen-aktan jasota utzi beharko da. Kontra-analisia egiteko lagina zigilatu egingo da eta erabiltzaileari emango zaio, edo, hori posible ez bada, haren esku egongo da udalak zehaztutako lekuan laginak hartu eta hurrengo bost egun baliodunetan. Bigarren lagina udalak analizatuko du eta hirugarren lagina zigilatu egingo da eta udalak zehazten duen laborategian geratuko da, behar izatekotan, analisi erabakitzailerak egiteko. Erabiltzaileak ordainduko ditu laginketaren gastuak.

20. artikulua. Analitikak

Kontrol analisiak egiteko laborategiek UNE-EN ISO 17025 arauaren edo analisia egitean indarrean dagoen arauaren arabeko egiaztapen ziurtagiria izan beharko dute; orobat, arauak ordenantza honen 12. artikuluko parametroei dagokienez legez ezarritako analisi-metodoak bete beharko ditu eta, bertan zehaztuta ez daudenen kasuan, aintzat hartu beharko du JTO-n zehaztutako kimiko eta mikrobiologikoei buruz ezarritakoa indarreko ur analisietarako.

IV. KAPITULUA KUTSADURA-KARGA

21. artikulua. Kutsadura-karga

1. Isurketa-baimenaren eskaeran emandako informazioan oinarrituta zehaztuko da kutsadura-karga. Hori ikusita, udalak isurketak karakterizatzea eskatuko du.

2. Eskatutako analitikak jaso ondoren, txostena idatziko da; horretan jasoko da kutsadura-karga, eskuragarri dauden datuak aztertu eta gero, eta aukera egongo da hurrengo analitikan beste karga batekin erkatzeko.

22. artikulua. Isurtze-bolumena

1. A eta B motako erabiltzaileei dagokienez, emantzat jotzen da isuritako hondakin-uren bolumena eta hornitutako uraren bolumena bat datozela. Hala ere, udalak isurketa kaudalimetro bat instalatzeko eskatu ahalko die ordenantza honetan ezarritako mugak gaindi ditzaketen B motako erabiltzaileei, C motako erabiltzaileak izan baitaitezke eta, beraz, kategoria horretara aldatzeko beharra egon baitaiteke.

2. C motako erabiltzaileei dagokienez, kasu guztietan eskatuko da isuritako hondakin uren bolumena neurtzen duen isurketa kaudalimetroa instalatzeko.

3. Isuritako bolumenak kalkulatzeko, hondakin-ur gisa hartuko dira hozteko urak.

4. Euri-uren bolumena zenbatu egingo da saneamendu-sarean gainerako hondakin urekin batera biltzen denean.

5. Erabiltzaileek beharrezko kontagailuak instalatu beharko dituzte hornidura-sare publikotik ez datozen ur-bolumenak eta kontsumo-puntu desberdinetako bolumenak ebaluatzeko.

V. KAPITULUA

ISURTZEKO BAIMENA

23. artikulua. Baimena lortzea

1. Hondakin urak saneamendu-sare publikoaren bidez husteko, udalaren baimena beharko da; baimen horren xedea da egiaztatzea isurketak ezarritako arauekin bat egiten duela eta hondakin-uren osaera eta ezaugarriak finkatutako mugen barruan mantentzen direla.

2. A motako erabiltzaileen kasuan, isurketa-baimena lehen erabilerako udal lizentzian edo baimen baliokidean barne hartuta dagoela ulertuko da.

3. B motako erabiltzaileen isurketa-baimena udal jarduera lizentziaren barruan, erantzukizunpeko adierazpenean edo aurretiazko komunikazioan dagoela ulertuko da.

4. Jarduera zabaltzeko alde aurretiko jakinarazpen araubideari lotuta dauden B motako erabiltzaileek ordenantza honetan ezarritakoa betetzen dutela adierazi beharko dute Komunikazio hori aurkezten denetik aurrera isurketa-baimena eskuratu dutela ulertuko da, ondoren udalak egin ditzakeen kontrol edo ikuskapenak gorabehera.

5. B motako erabiltzaileek ordenantza honen 1. eranskinean adierazitako informazioa aurkeztu beharko dute, ondorio horietarako eskuragarri dauden eskaera ereduak erabiliz.

6. C motako erabiltzaileek isurketa-baimena eskatu beharko diote udalari, 1. eranskinean jasotako irismenarekin bat. Hondakin-urei aurretratamendua egin behar bazaie, Instalazioen aurreproiektu teknikoa ere jasoko da, baita aurretratamenduak aurreikusi diren efektuak izango dituelako justifikazioa.

7. C motako erabiltzaileentzako isurketa-baimena lortzea ezinbesteko baldintza izango da jarduerari hasiera emateko; beraz, jarduera sailkatua hasteko komunikazioa aurkeztu baino lehenago bete beharrekota betekizuna izango da. Isurketa-baimena indargabetzen bada, jardueraren funtzionamendua gelditu beharko da.

8. Xedatutako baldintzak bete direla egiaztatu ostean emango da isurketa-baimena.

9. 6 hilabeteko epea egongo da isurketa-baimenen inguruko ebazpena emateko. Behin epe hori agortuta ebazpenik jaso ez bada, baimena ukatu dela ulertuko da.

24. artikulua. Isurketa-baimena aldatzea

1. Udalak kasu hauetan izapidetuko du isurketa—baimenaren aldaketa:

- Arauetan edo agintaritzek xedatutako eskakizunek ordenantzaren edukiari eragiten diotenean.
- Isurketa-baimenaren titulartasuna aldatzen denean.
- Aldaketak izaten direnean isurketa bolumenean edo kutsadura elementuetan, betiere, aurreko isurketa-baimenaren aldean ehuneko 10etik gorako aldea dagoenean.
- Ekoizpen prozesuetan eta bilketa guneetan funtsezko aldaketak izaten direnean.
- Aurreko isurketa-baimenetik 5 urte igaro direnean.

2. Erabiltzaile batek egiten duen aldaketa funtsezkoa bada, baimenaren hedapen edo aldaketa izapidetu beharko du, funtsezko aldaketatzat hartzeko baldintza berriak eta jardueren zirkunstantzia berriak egiaztatuz, betiere, idatzi zati honetan baimen berrietarako azal dutako prozedurei jarraikita.

25. artikulua. Baimenaren indarraldia

Isurketa-baimenek bost urteko indarraldia izango dute gehienez, eta baimendutakoaren iraupen bereko elkarren ondoko epetan luzatuko dira, betiere, baldin eta isurketek uneoro eska daitezkeen ingurumen kalitateko arauak betetzen jarraitzen badituzte. Baimena luzatzeak ez du eragozten bestelako zirkunstantziak azaltzen direnean udalak berrikuspina egin ahal izatea. Azken kasu horretan, titularrari jakinaraziko zaio sei hilabete lehenago.

26. artikulua. Sarera konektatzeko betebeharra kentzea

1. Behin isurketa-baimena lortuta eta hiri-lurrean ez daudela egiaztatu ondoren, saneamendu-sare publikotik 200 metro baino gutxiagoko distantziara dauden A eta B motako erabiltzaileek saneamendusarera konektatzeko betebeharra kentzea eskatu beharko diote udalari, baldin eta konexioa egiteko berebiziko zailtasunak badituzte. Ezingo da inolaz ere betebeharrak hori kendu baldin eta aipatutako erabiltzaileak hiri-lurretan baldin badaude.

2. Eskaerarekin batera, saneamendu-sare publikorako konexioa egiteko berebiziko zailtasuna egiaztatzen duen justifikazio teknikoa aurkeztu beharko da.

3. Udalak bi hilabeteko epean ebartziko du dispentsaren inguruan, baldin eta datu osagarriak eskatu behar ez bada.

27. artikulua. Iraungipena

1. Udalak isurketa baimenaren iraungipena adieraziko du honako kasu hauetan:

- Isurketak urtebetetik gora etenda geratzen direnean.
- Hondakin-urak sortzen dituen merkataritza-jarduera, industria-jarduera edo bestelako jarduera bideratzeko udal baimena iraungitzen, indargabetzen edo kentzen denean.
- Jarduketa-araubide honen peko jardueren alde aurretiko jakinarazpena indarririk gabe uzten denean.

2. Udalak kasu hauetan indargabetuko du isurketa—baimena:

- Erabiltzaileak hondakin-urak isurtzen dituztenean eta horien ezaugarriek ordenantza honetan ezarritako edo isurketa-baimenean zehaztutako debekuak edota mugak betetzen ez dituztenean, eta erabiltzaileak isurketa egiten jarraitzen duenean bidezko errekerimenduak jaso arren.
- Isurketa-baimenean edo ordenantza honetan ezarritako bestelako baldintzak edo betebeharrak betetzen ez dituztenean eta horien larritasunak edo erabiltzailearen uko etengabeak hori egitea justifikatzen duenean.

3. Isurketaren baimenaren iraungipena edo indargabetzea espediente kontraesankor bidez adieraziko da eta horrek zehaztuko du saneamendu-sare publikora isurketak egiteko debekua; halaber, udalari ahala emango zaio sare horretan edo erabiltzailearen sare pribatuan beharrezko obrak egiteko, betiere, isurketa horiek fisikoki ekidite aldera.

4. Aurreko idatzi zatietan ezarritako iraungipenak edo indargabetzeak berekin ekarriko du hondakin-urak sortzen dituen jarduera itxi edo bertan behera utzi beharra.

VI. KAPITULUA

BETEBEHARRAK ETA ZIGOR ARAUBIDEA

28. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak

Erabiltzaileen betebeharra izango da isurketak emandako baimenaren baldintzei jarraituta egitea; gainera, honako betebeharrak ere izango dituzte:

– Udalari jakinaraztea titulartasun-aldaketa, isurketa baimena haien izenean ager dadin.

– Udalari merkataritza-jardueran edo industria-prozesuan izandako aldaketak jakinaraztea, etxebizitzak direnean izan ezik, baldin eta horiek berekin badakarte ehuneko 10etik gorako aldea isurketen bolumenean edo kopuru bereko aldea edozein elementu kutsatzaileraren kopuruetan.

29. artikulua. Arau-hausteak

Honela sailkatuko dira arau-hausteak:

a. Arinak:

i. Saneamendu-sare publikoari, instalazioei, araztegiei edota hirugarrenei 500 eurotik beherako kalteak eragiten dizkieten ekintzak edo omisioak.

ii. Ordenantza honetan edo isurketa-baimenean ezarritako mugak ez betetzea.

iii. Titulartasun-aldaketak ez jakinaraztea.

iv. Ordenantza honetan jasotako edozein debeku ez betetzea edo bete bideratu beharreko ekintzak ez bideratzea, baldin eta horiek arau-hauste larri edo oso larri gisa sailkaturik ez badaude.

b. Larriak:

i. Jardueraren edo isurketa-kalitatearen aldaketak ez jakinaraztea.

ii. Ikuskapen, zaintza eta kontrol zereginak oztopatzea.

iii. Saneamendu-sare publikoari, instalazioei, araztegiei edota hirugarrenei 500 eta 4.500 euro bitarteko kalteak eragiten dizkieten ekintzak edo omisioak.

iv. Ebazpen irmodun bi arau-hauste arin egitea baimenaren indarraldian.

v. Ez jakinaraztea arrisku egoera bat edo larrialdi bat.

vi. Ikuskapenari uko egitea, ikuskapena ez onartzea edo partzuergoak eskatutako informazioa ez ematea, baldin eta egiteko den edo egin den isurketaren jakinaren gainean egoteko beharrezkoa bada.

c. Oso larriak:

i. Baimendu gabeko isurketak egitea.

ii. Ebazpen irmodun bi arau-hauste larri egitea baimenaren indarraldian.

iii. Ordenantza honetan jasotako arau-hausteak, baldin eta aurreikusitako ekintza edo omisioen ondorioz 4.500 eurotik gorako kalteak eragiten badizkiete saneamendu-sare publikoari, instalazioei, araztegiei edota hirugarrenei.

30. artikulua. Zehapenak

1. Arau-hausteez zehapen edo betebeharrak hauek ekarriko dituzte:

- a. Idatzizko ohartarazpena.
- b. Isuna.
- c. Isurketa-baimena kautelaz indargabetzea.
- d. Isurketa-baimena behin betiko, osoki edo partzialki indargabetzea.

Zehapen hauek ezarriko dira arau-hauste arinen ondorioz:

- a. Idatziz ohartaraztea.
- b. 700 eta 3.000 euro bitarteko isuna.

Zehapen hauek ezarriko dira arau hauste larrien ondorioz:

- a. 3.001 eta 9.000 euro bitarteko isuna.
- b. Gainera, baimena aldi baterako indargabetzea agindu ahalko da, zigorra ekarri duen arazoia desagertu arte.

Zehapen hauek ezarriko dira arau-hauste oso larrien kasuan:

- a. 9.001 eta 15.000 euro bitarteko isuna.
- b. Gainera, isurketa-baimena behin betiko indargabetzea agindu ahalko da.

2. Isurketa-baimena behin behinean edo behin betiko indargabetzea dakarten zehapenek eraginkor bihurtzeko beharrezko lanak egitea inplikaturiko dute. Erabiltzaileak lan horiek egiten ez baditu emandako epean, udalak subsidiarioki egin ahalko ditu, erabiltzailearen kontura.

3. Egindako arau hausteez saneamendu-sare publikoaren osotasuna, ustiapenez arduratzen diren eta hura zaintzen duten pertsonen osasuna, arazketa-prozesua edo jabari publiko hidraulikoa arriskuan jarriz gero, zigor-espeditentearen inbentarioak isurketa horien kautelazko eta berehalako etenaldia ezarri ahalko du eta, errekerimenduari men egin ezean, isurketa-baimenaren kautelazko indargabetzea.

4. Zigor espeditenteen tramitazioak legeria aplikagarrian herri administrazioen zigortze-ahalmenaren egikaritzeari buruz ezarritakoa beteko du eta jarritako isunak premiamendu bidez bihurtuko dira eraginkor, baldin eta borondatez ordaintzen ez badira.

5. Egokitzat jotzen diren zehapenak gorabehera, arau-hausleek saneamendu-sare publikoan eragindako kalteak konpondu beharko dituzte eta kalte-ordaina eman beharko diote udalari balizko gastuak itzultzeko. Udalak zehaztuko du kalte-ordainen zenbatekoa, eragindako kaltearen arabera. Udalak egokitzat jotzen badu, konponketa lanak egin ahalko ditu, arau-hauslearen kontua, baina, betiere, lehenago jakinarazita.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.

1. Ordenantza hau indarrean sartzean dauden erabiltzaile guztiek isurketa-baimena eskuratu beharko dute jarraian zehazten diren baldintzen eta epeen arabera, horietara egokituta saneamendu-sare pribatuak eta ekoizpen, merkataritza eta industria prozesuak, ordenantza honen manuak bete daitezkeen beharrezkoak diren alderdi guztietan.

2. Hala ere, higiezin edo instalazioen ezaugarri fisikoen ondorioz ezin bada aurreko paragrafoan aipatzen den egokitzapena osoki edo partzialki egin, ez da hori egitea galdegingo, baina udalak ordezkoko beste neurri batzuk hartzeko beharra ezarri ahalko du.

3. A kategoriako erabiltzaileei isilbidez emango zaie isurketa-baimena.

Hala ere, erabiltzaile horiei eskatu ahalko zaie isurketa-instalazioak egokitzeko (bereiz eraiki beharreko sareak eraikitzea, kontrol-kutxatila ipintzea etab.), hori egoki bihurtzen duten zirkunstantziak agertzen dira, adibidez:

- Hustuketa, industriako efluente kutsatzaileekin batera.
- Azalera handietan kokaturik egotea eta horrek euri-uren emari handiak drainatzea.
- Saneamendu-sare publikoaren ustiapenean edo efluente edota ingurune hidriko hartzailean gorabeherak eragin ditzaketen bestelakoak.

4. 3. artikuluan definitutakoarekin bat, C kategoriako erabiltzaile guztiek eta industria-establezimendu izanik hondakin-ur industrialak sortzen dituzten B kategoriako erabiltzaileek berriz sailkatzea eta isurketa-baimen berria eskatu beharko dute ordenantza honetan xedatutako prozedura aplikatuta, ordenantza indarrean sartu zenean isurketa-baimena emanda izan arren

5. Ordenantza hau indarrean sartu eta hurrengo sei hilabeteetan egin beharko da eskera hori eta eskaerarekin batera beharrezko dokumentu eta proiektuak ere aurkeztu beharko dira.

6. Isurketa-baimena emateak inplikatzeko badu ekoizpen-, merkataritza- edo industria-prozesuak aldatu, saneamendu-sare pribatuak egokitu edo hondakin-uren aurretratamenduak egin beharra, epe hauek emango zaizkio erabiltzaileari:

a. Sei hilabete (6), saneamendu-sare pribatua aldatzeko edo egokitzeko konplexutasun tekniko txikiko lanak egin behar badira.

b. Hamabi (12) hilabete gainerako kasuetan.

7. Udalak isurketa-baimenaren gaineko zehaztapenik egin ezean, ulertuko egingo da behin-behinean eman duela, betiere, egin lezakeen zehaztapenaren zain.

8. Sare publikora isurtzeko betebeharra kentzea eskatzeko epea isurketa-baimena eskatzeko epe bera izango da.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean sartuko da, onetsi ondoren, ALHAOn argitaratzen denetik hogeit egun baliadun igarotzen direnean.

1. ERANSKINA

Eskaeran aurkeztu beharreko informazioaren irismena

B KATEGORIAKO ERABILTZAILEAK

A. Erakunde eskatzailearen datuak

B. Harremanetarako pertsonaren datuak

C. Jardueraren datuak:

a. Jardueraren tipologia, jardueraren araubidea,

b. Ekoizpen prozesuaren azalpena (prozesu-diagrama barne),

c. Isurketaren ezaugarrien identifikazioa: Kontsumitutako ur-bolumena, isurketaren bolumena eta isurketaren kutsadura-karga.

C MOTAKO ERABILTZAILEAK

A. Erakunde eskatzailearen datuak

B. Harremanetarako pertsonaren datuak

C. Jardueraren datuak:

a. Jardueraren tipologia, jardueraren araubidea,

b. Ekoizpen-prozesuaren azalpena (prozesu-diagrama, erabilitako lehengai eta gai osagarrien kontsumoa),

c. Isurketaren ezaugarrien identifikazioa:

i. Uraren balantzea

ii. Isurketaren fluxu desberdinen banaketa (industrial/etxekoa/eurikoa/hozte-prozesuetakoa), kontsumitutako ur-bolumena, isuritako bolumena eta isurketaren kutsadura-karga

iii. Isurketa mota desberdinen tratamenduen identifikazioa

iv. Hustuketa-sarearen ezaugarriak

v. Isurketaren kutsadura-kargaren ezaugarriak eta, hala badagokio, isurketaren analisia. Jardueran ohikoenak diren gai kutsatzaileen identifikazioa